

Tokiko garapen sistema irekien marko analitiko eta operatiboa. Nafarroa Garaiko Sakana eskualdeko garapen esperientziaren azterketa

Tesiaren egilea: Joseba Mikel Garmendia Albarracin

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Ekonomia Aplikatua Saila

Doktorego-programa: Garapenari buruzko ikasketak

Jakintza-arloa: Ekonomia Aplikatua

Tesi-zuzendaria: Aitziber Etxezarreta Etxarri eta Xabier Gainza Barrenkua

Tesiaren laburpena:

Tesi honetan «Tokiko Garapen Sistema Irekia» marko kontzeptual operatibo eta analitikoa proposatu da, zeina tokiko eskalan garapen ekonomiko endogenoa sustatzeko eta esperientzia horiek aztertzeko tresna den.

Globalizazioaren testuinguruan, estatuz azpiko lurraldeek abantaila lehiakorrek eraikitzeke gaitasunak sostengatzen dituzten arrazoi ekonomikoak arakatu dira. Horri lotuta, azken hamarkadetan azaldutako lurralde-garapeneko eta -berrikuntzako ereduak —industria-barrutiak, ingurune-berritzaileak (*millieux innovateurs*), lurralde-klusterrak, erregioko berrikuntza-sistemak eta ikasbidean dauden erregioak (*learning regions*)— tokiko eskalara eta paradigma endogenora egokitzeko dituzten mugak eta ezintasunak antzeman dira. Emaiza horiek justifikatu dute tokiko eskalarako garapen ekonomikorako marko kontzeptual espezifikoak eraiki beharra.

Bestaldetik, Sakanako eskualdeko ehun industrialaren azterketan aplikaturiko erregresio lineal anizkoitz hierarkikoaren analisiak frogatu du berrikuntzaren korrante eboluzionistak eta industria-distribuen literaturak landu duten hainbat mikro-oinarrien funtzionalitatea, hala nola atzeranzko eta aurreranzko loturak (*linkages*), aglomerazio-kanpokotasunak, kanpokotasun teknologikoak (Mashall-Arrow-Romer; Porter; Jacobs), transakzio-kostuak eta gizarte-kapitala. Ondorioz, mikro-oinarri horiek landutako marko analitikoan txertatu dira.

Zutabe horien gainean, «Tokiko Garapen Sistema Irekia» izeneko marko analitiko eta operatiboa eraiki da, sistemen teoriari jarraikiz hiru planotan antolatuta. Lehenik, tokiko sistemaren mugak marraztu dira, bi irizpideren arabera: existitzeko arrazoiak ematen dion funtsa eta irizpide geografikoa. Bigarrenik, sistema horretan azaltzen diren elementuak, prozesu operatibo nagusiak eta beren arteko harremanak jaso dira. Hirugarrenik, sistema ireki horren barrurako zein kanporako funtzionamendua eta bere erreprodukzioan eragiten duten faktoreak integratu dira.

Zati enpirikoari dagokionez, Nafarroa Garaiko Sakana eskualdean 2011-2022 bitartean garapen ekonomikorako esperientziaren genesisia eta bilakaera aztertu da, proposaturiko marko kontzeptualaren baliagarritasuna baieztatuz, eta arreta berezia eskainiz haraneko ehun industrialaren analisiari, batez ere merkataritza-artikulazioari, berrikuntza esparruko lankidetzari eta enpresa barruko berrikuntza-prozesuari. Azpimarragarria da azterketa horretan erabilitako metodologia-aniztasuna, hala nola ikerketa etnografikoetan eta antropologian oso erabilia den behaketa parte-hartzailearen metodologia, Akzio-lerketa metodologiara gerturatu duena; edota, metodologia kuantitatiboen artean, ohiko erregresio- eta korrelazio-metodo estatistikoez gain, eskualdeko egitura industrialak aztertzeko baliatutako Sareen Gizarte Analiaren metodoa (*Social Network Analysis*).

Funtsean, eraikitako eredu analitikoaren aplikagarritasuna eta egokitasuna baliozkotu egin da Sakana bailarako esperientziaren analisisan erabiliz.